


TESTU MOTAK

Gaiaren helburuak

- Testu-mota desberdinak ezagutzea
- Iritzi-artikulu bat aztertzeko baliabideak eskuratzea
- Iritzi-artikulu bat egiteko baliabideak eskuratzea
- Iritzi-artikulu bat idaztea
- Ikaskide batek egindako iritzi-artikulua aztertu eta feedback-a ematea



1 saioa

Definizio hauek zein testu motari dagozkie?

Denbora tarte jakin batean gertatzen diren ekintzen kontaketa da. Gertaerak ordenatu, erakutsi eta azaldu egiten dira

Edozein gairi buruz, zerbait edo ezer ere ez dakien hartzaile batentzat gertakizun edo fenomeno baten azalpen objektiboa egiten duen testua

Gizaki, gauza, gertakizun, prozesu edo fenomeno baten ezaugarri fisiko, psikologiko nahiz bestelakoak agertu, erakutsi, adierazi edo zehazten dituen testua

Gertakizun, arazo edo fenomeno baten inguruko tesi, iritzi, uste edo jarrera bat egiaztatzeko zein errefusatzeko edo baztertzeko ematen diren aldeko edo kontrako arrazoiez osaturiko testua

Definizio hauek zein testu motari dagozkie?

NARRAZIOA
Denbora tarte jakin batean gertatzen diren ekintzen kontaketa da. Gertaerak ordenatu, erakutsi eta azaldu egiten dira

AZALPENA
Edozein gairi buruz, zerbait edo ezer ere ez dakien hartzaile batentzat gertakizun edo fenomeno baten azalpen objektiboa egiten duen testua

DESKRIBAPENA
Gizaki, gauza, gertakizun, prozesu edo fenomeno baten ezaugarri fisiko, psikologiko nahiz bestelakoak agertu, erakutsi, adierazi edo zehazten dituen testua

ARGUDIOA
Gertakizun, arazo edo fenomeno baten inguruko tesi, iritzi, uste edo jarrera bat egiaztatzeko zein errefusatzeko edo baztertzeko ematen diren aldeko edo kontrako arrazoiez osaturiko testua

NARRAZIOA

NARRAZIOA

Denbora tarte jakin batean gertatzen diren ekintzen kontaketa da. Gertaerak ordenatu, erakutsi eta azaldu egiten dira.

Erabilera-eremua eta testu zehatzak:

- **Literatura:** ipuina, eleberria, kondaira, biografia, etab.
- **Komunikabideak:** albistea, erreportajea, dokumentala, iragarkia, komikia, filma, etab.
- **Instituzioetan:** akta, aitorpena, eskutitz ofiziala, etab.
- **Pertsonen arteko harremanetan:** eskutitza, egunerokoa, postala, telegrama, etab.
- **Ikasketak:** historia kontakizuna, etab.

AZALPENA

AZALPENA

Edozein gairi buruz, zerbait edo ezer ere ez dakien hartzaile batentzat gertakizun edo fenomeno baten azalpen objektiboa egiten duen testua.

Erabilera-eremua eta testu zehatzak:

- **Literatura:** testu zatiak, etab.
- **Komunikabideak:** txostena, dokumentala, aldizkari espezializatuetako artikuluak, etab.
- **Instituzioetan:** iragarki ofiziala, konstituzioa, eskabidea, etab.
- **Pertsonen arteko harremanetan:** azalpena, aholkua, etab.
- **Ikasketak:** testuliburua, monografia, txostena, laburpena, eskema, azterketen erantzunak, etab.

DESKRIBAPENA

DESKRIBAPENA

Gizaki, gauza, gertakizun, prozesu edo fenomeno baten ezaugarri fisiko, psikologiko nahiz bestelakoak agertu, erakutsi, adierazi edo zehazten dituen testua.

Erabilera-eremua eta testu zehatzak:

- **Literatura:** bertso, abesti, olerki, eta abarretan tartekatutako sekuentziak.
- **Komunikabideak:** grafikoa, argazki oina, lan eskaintza, iragarki laburra, etab.
- **Instituzioetan:** kurrikuluma, testamentua, isuna, ziurtagiria, etab.
- **Pertsonen arteko harremanetan:** gertaera/egoera baten kontaketa xehea, etab.
- **Ikasketak:** eskema, diagrama, irudi oina, testuliburua, definizioak, etab.

ARGUDIOA

ARGUDIOA

Gertakizun, arazo edo fenomeno baten inguruko tesi, iritzi, uste edo jarrera bat egiaztatzeko zein errefusatzeko edo baztertzeko ematen diren aldeko edo kontrako arrazoiez osaturiko testua.

Erabilera-eremua eta testu zehatzak:

- **Literatura:** entsegua, epistola, eztabaida, etab.
- **Komunikabideak:** iritzi artikulua, mahai-ingurua, zuzendariari gutuna, etab.
- **Instituzioetan:** eskabidea, kontratuak, parlamentuko eztabaida, errekurtsoa, etab.
- **Pertsonen arteko harremanetan:** eztabaida, erreklamazioa, kritikak, etab.
- **Ikasketak:** txostena, tesia, ponentzia, artikulua, azterketen erantzunak, etab.


ARGUDIOA

Gertakizun, arazo edo fenomeno baten inguruko tesi, iritzi, uste edo jarrera bat egiaztatzeko zein errefusatzeko edo baztertzeko ematen diren aldeko edo kontrako arrazoiez osaturiko testua.

Erabilera-eremua eta testu zehatzak:

- **Literatura:** entsegua, epistola, eztabaida, etab.
- **Komunikabideak:** iritzi artikulua, mahai-ingurua, zuzendariari gutuna, etab.
- **Instituzioetan:** eskabidea, kontratuak, parlamentuko eztabaida, errekurtsoa, etab.
- **Pertsonen arteko harremanetan:** eztabaida, erreklamazioa, kritikak, etab.
- **Ikasketak:** txostena, tesia, ponentzia, artikulua, azterketen erantzunak, etab.

IRITZI-ARTIKULOA



Iritzi artikulua... zer da?

Gai bat dela-eta, nork bere tesi edo iritzia defendatzeko (eta beste batena/batzuenak baztertzeko) helburuarekin idazten den argudio testua da. [...] Testu mota honen ezaugarri nagusia subjektibotasuna da, eta tresnak, berriz, *argudioak* dira; hots, testugilearen *iritzia indartzeko erabiltzen diren arrazoiak.*

Iturria: Euskaljakintza

HELBURU KOMUNIKATIBOA: INFORMATZEA + IRITZIA EMATEA

Egunerokotasun handiko gertakariren baten berri eman eta horren gaineko iritzi pertsonala eman.

Verbum

Ezaugarriak:

- Zehatzak, argiak eta koherenteak
- Bi helburu: informatzea eta iritzia ematea
- Irakurleen aldez aurretiko ezagutza gutxienekoa eskatzen dute (hiztegia eta kultura)
- Gertakariak edota datuak baino, ideiak eta iritziak
- Iruzkin eta balorazioak
- Adierazpen-askatasun handia


Idazten hasi aurretik kontuan hartzekoak:

- ZERTAZ IDATZI (EGUNEROKOTASUNA DUEN GAIA)
- DEFENDATU NAHI DUZUN IKUSPUNTUA ARGI IZAN
- AURKARIA ZEHAZTU
- LIMURTZE PROZESUA ZEHAZTU (estrategia)



Egitura (posiblea):

- Sarrera
- Garapena
- Amaiera



Sarrera ....

SARRERA MOTAK:

Adibideetarako erabiliko den gaia: *«Ahozko/idatzizko kulturatik telebistaren kulturara»*

✓ **Gaia testuinguru historikoan kokatuta**

Duela zenbait urte, Caselli izeneko asmatzaile italiarrak, berak ezertxo ere jakin gabe, gaur egun gure bizitzaren muinera sartu den munstro ikaragarria sortu zuen. Guk tramankulu hau Telebista izenez ezagutzen dugu egun.

✓ **Norberari gertatutakotik**

Nori ez zaio gertatu, noizbait, lagunari galdera bat egin eta erantzunik ez jasotzea? Niri, zoritxarrez, behin baino gehiagotan.

✓ **Galdera erretorikoen bidez**

Jakina denez, azken bolada honetan ahozko literaturak garrantzia galdu du. Jadanik ez da aitona-amonarik ipuinak kontatzen ikusten. Zergatik galdu da horren aberasgarria den ohitura hori?

✓ **Egungo egoera azpimarratuz**

Gaur egun telebista denborapasa garrantzitsuenetako bat bihurtu da. Gero eta ume gutxiago oheratzen da aitak edo amak ipuin bat irakurri ondoren, edo liburu batekin minutu batzuk igaro ondoren. Orain, afalosteko filma ikusi eta gero oheratzen gara.

Garapena

ARGUDIAKETA MOTAK:

- ✓ **Autoritate argudioa.** Pertsona, elkarte edota erakunde baten iritzia erabiliz, artikuluko tesia sendotzeko erabili ohi dugu argudiaketa modu hau.

Adibidez: *Munduko zientzialari jakintsuenek diotenez,...*

- ✓ **Irakurlea eta idazlea talde bereko.** Artikulugileak bere pentsaera beste askorena dela agertzen du. Pluraleko lehen pertsona, gu, azpimarratzen da argudiaketa mota honetan.

Adibidez: *Motorzaleok badakigu kaskoa beharrezkoa dugula.*

- ✓ **Adibide bidez.** Iritziak argiago, ulergarriago, eta, aldi berean, pisu handiagoko egiten dituen argudiaketa dugu hau.

Adibidez: *Esate baterako, zein gurasok mugatzen du telebista aurreko egonaldia?*

- ✓ **Tesiak kontrajarriz.** Norbere eta besteen tesiak eztabaidatuz, arrazoizko tesi bat proposatu bukaeran.

Adibidez: *Telebista bidez ez omen da ezer ikasten, baina egia da dokumental ederrak ere ematen dituztela.*

ARGUMENTAZIOAREN LOGIKA

Hiru modutara eraiki daiteke arrazoibidea:

1. Justifikazio bidezko estrategia. Aldez aurretik adierazitako tesia argudioen bidez justifikatu
2. Eztabaida bidezko estrategia. Aldeko eta kontrako argudioak kontrajarri eta irakurlea zuk nahi duzun ondoriora bideratu.
3. Deliberazio bidezko estrategia. Irakurleak egin beharreko arrazoibidea bideratu eta pixkanaka tesia eraiki.

JUSTIFIKAZIO BIDEZKO EGITURA

- Objektua (gaia)
- Tesia
- Premisak/datuak
- Tesiaren aldeko argudioak
- Amaiera

EZTABAIDA BIDEZKO EGITURA

- Objektua
- Tesia
- Kontrako tesia
- Kontrako tesiaren argudioak (kontraargudioak)
- Kontraargudioen ezeztatzea
- Premisak edo datuak
- Proposatutako tesiaren aldeko argudioak
- Amaiera

DELIBERAZIO BIDEZKO EGITURA

- Objektua
- Premisak edo datuak
- Argudioak
- (Kontraargudioak)
- Tesiak edota ondorioak

DISKURTSOAREN MARKATZAILEAK:

- ✓ Testu zatien arteko lotura semantiko eta logikoa sortzen dute
- ✓ Testua egoki ulertzen eta interpretatzen laguntzen dute
- ✓ Testuaren informazioa kohesionatu eta antolatzen dute



SAILKAPEN BAT:

Hasierakoak
- Hasteko,
- Lehenengo eta behin,
- Ezer baino lehen,
- Ezeri ekin baino lehen,
- Bazen behin
- Lehen-lehenik,
- ...z hitz egin behar dudalarik,
- Sarrera gisa esango dugu ...

Ideia bat aurkezteko
- -ri dagokionez,
- ... dela eta, komeni da esatea ...
- Oro har,



Ordena
- Alde batetik, ... Bestetik,...
- Ildo beretik,
- Era berean,
- Halaber,
- Lehenik.../ bigarrenik, ...
- (Arestian) esan bezala,
- (Gorago) esan bezala,
- Lehengo hariari jarraituz,
- Gauzak horrela,
- Horiek horrela,
- Bai... bai
- Ez... ez

Jarraipena
- (Honen) ondorioz,
- Horren haritik,
- Hari beretik,
- Era berean,
- Bigarrenik,
- Gero,
- Honen ostean,
- Hori (ikusi) eta gero,

Kontrakotasuna

- Baina
- Dena dela, / Dena den,
- Hala (eta guztiz) ere,
- Edozein modutan ere,
- Edonola ere,
- Nolanahi ere,
- Esanak esan,
- Hori(ek) gorabehera,
- ..., ordea,
- ..., berriz,
- ..., aldiz,

Arrazoitzeko

- bait-
- ... -(e)lako
- -(e)la eta
- -(e)la bide
- -t(z)eagatik
- Horregatik
- Izan ere,
- Hori dela eta,
- Horrela, ba,
- Beraz,
- Hortaz,



Adibideak jartzeko

- Adibidez,
- Esate baterako,
- Hau da,
- Ikus, adibidez, -ren kasua: ...
- Kasu (bat aipatzeko ...)
- Hori erakusteko, aipa dezagun...

Aipamenak; besteren iritziak

- (r)en arabera,
- Askoren / Batzuen iritziz,
- ... (r)en ustez,
- (r)en esanetan,
- Diotenez,
- Antza denez,
- Dirudienez,
- Badirudi... -(e)la
- ...(e)la dirudi
- Dakigunez,
- Irakurri- dugunez,

Indartzeko

- Aipatu bezala,
- Aipatu dugunez,
- Berriro esanda,
- Beste era batera esanda,
- Zehatzago esanda,
- Hobeto esanda,
- (Gorago) esan bezala,
- Are gehiago,
- Gainera,
- Kontuan hartu, gainera,

Bukaerakoak eta ondorioak

- Amaitzeko, / Bukatzeko,
- Amaiera bezala,
- Aurreko guztia (laburbilduz,)
- Ondori-o gisa,
- Amai dezagun esanez (e)la
- Azkenik, zera:...
- Laburbilduz,
- Hitz gutxitan (esateko):...
- Horrenbestez, zenbait ondorio atera daitezke: 1... 2... 3...



Ideia berriak txertatzeko

- Ez hori- bakarrik,
- Bestalde / Beste aldetik
- Baita ... ere
- Baina, bestetÃ-k,
- ... ere bai
- ez ezik ... ere
- Egia da, hala ere,
- Izan ere,
- (Horrez) gain,

Onartzeko (ziurtasuna)

- Ez dago dudarik...
- Seguruenik
- Ziur aski
- Zer esanik ez
- Egia da... -(e)la
- Dudarik gabe
- Zalantzarik gabe
- Argi dago (e)la
- Bistan da (e)la
- Beharrezkoa da garbi uztea
- ..., noski / ..., jakina

KOHERENTZIA

Aukerak:


- Ideia nagusiak laburbildu
- Ondorioak atera
- ...



Zein puntu zaindu behar ditu iritzi-artikulu batek?

Hartu bi minutu pentsatzeko.

Ideien zaparrada egin eta ideiak bildu.



Iritzi-artikulua baloratzeko alderdiak:

- ✓ **IZENBURUA.** Esanguratsua eta erakargarria (edo ez).
- ✓ **SARRERAKO PARAGRAFOA.** Ondoren datorrena ondo kokatu eta bideratzea (edo ez).
- ✓ **TESIA.** Gaia argi adieraztea (edo ez)
- ✓ **IDAZLEAREN POSIZIOA GAIAREKIKO.** Autorearen iritzia argitasunez azaltzea (edo ez)
- ✓ **ARGUMENTUAK.** Sendoak/ahulak, behar adina/ez. Egoki lotuta egotea (edo ez) gaiarekin, autorearen posizioarekin eta egoerarekin.
- ✓ **ERREFERENTZIAK.** Argumentuak indartzeko beste ahots batzuk sartzea (edo ez).
- ✓ **IDEIEN ARGITASUNA.** Argi ulertzeko modukoak eta zentzuzkoak (edo ez).
- ✓ **INFORMAZIOAREN BANAKETA PARAGRAFOETAN.** Antolaketa logikoa eta koherentea den (edo ez)
- ✓ **KOHESIOA, TESTU ANTOLATZAILEAK.** Informazio berria ondo jostea aurretik emandako informazioarekin, ideien jarraikortasuna egotea (edo ez).
- ✓ **KOHERENTZIA.** Testua unitate bat izatea, informazioa logikoki egituratuta egotea eta ideiak ordenatuta aurkeztea (edo ez).
- ✓ **HIZKUNTZA ERREGISTROA.** Irakurlearen eta argitaratzen den euskarriaren araberakoa izatea (edo ez).
- ✓ **HIZKUNTZAREN ZUZENTASUNA.** Egoki eta zuzen idatzia egotea (edo ez).
- ✓ **AMAIERA.** Aurretik esandakoaren laburbiltzea, ondorioa/emaitza adieraztea (edo ez).

Iritzi-artikulua baloratzeko errubrika:

	ESKAS	JUSTU	ONDO	OSO ONDO
IZENBURUA				
SARRERAKO PARAGRAFOA				
TESIA				
IDAZLEAREN POSIZIOA				
ARGUMENTUAK				
ERREFERENTZIAK				
IDEIEN ARGITASUNA				
INFORMAZIOAREN BANAKETA PARAGRAFOETAN				
KOHESIOA, TESTU ANTOLATZAILEAK				
KOHERENTZIA				
HIZKUNTZA ERREGISTROA				
HIZKUNTZAREN ZUZENTASUNA				
AMAIERA				



Etxean egin beharrekoa:

Iritzi-artikulua

Gaia:

a) Gaurkotasuna duen gai librea
b) Ondorengo gaietako bat:
- **Euskal kulturaren transmisioa**
- **Eraso matxisten areagotzea**
- **Euskal hezkuntzaren erronkak**

Ordenagailuz idatzita, izenik gabe eta inprimatuta
GA1ekoek → urriaren 22rako, 8:30ean
GA2koek → urriaren 23rako, 8:30ean

 **Kontuz, gaia ez da izenburua** 

2 saioa